



Arartekoaren ebazpena, maiatzaren 6koa. Horren bidez, Portugaleteko Udalari gomendatzen zaio udal erroldan helbidea aldatzea onar dezala.

Aurrekariak

1. 2003an kexagileak, (...)ek, teilatupea erosi zuen Portugaleteko (...) kaleko (...)ean eta bertara joan zen bizitzera. Udal Ordenantzen arabera, teilatupea trasteleku gisa edo beste edozein xederako erabil zitekeen. Orduz gerotzik, hainbatetan eskatu du, nola ahoz hala idatziz, udal erroldan helbidea alda diezaiotela. Udalak ez du udal erroldan helbidea aldatzeko eskaera onartu, eta ez dio idatziz erantzun; hori dela-eta, kexa aurkeztu du erakunde honetan.
2. Kexa behar bezala izapidetzeko, Arartekoak informazioa eskatu zion Portugaleteko Udalari. Horri erantzunez, lehenengo jakinarazpen batean, Udalak txostena bidali zuen eta, bertan, higiezinaren hirigintzako egoeraren berri eman zuen. Udalak etxebizitza-kopurua gehienez ere, eta guztira, 8 etxebizitzara gehitzea baimendu zuen (...) kaleko (...)ean (lehen ...) dagoen higiezina birgaitzeko obretan; halaber eraikina lehenengoz okupatzeko lizentzia eman zuen eta bertan "*berariaz adierazi zen teilatupea trasteleku gisa erabili behar zela*". Era berean, jakinarazi zuen udal plangintza urratzea zekarrelako ez zuela (...) andreak eskatutako erabilera-aldaketa onartu, Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Portugalete, S.A. (Surposa) sozietateak egindako txostenari jarraiki, honi agindu baitio Udalbatzak Alde Zaharraren Plan Berezia gara dezan. Higiezina antolaketaren barruan dago, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren arabera, Alde Zaharraren Plan Bereziari dagokion jarduketareman. Eraikinean birgaitze lanak egin ziren eta baimendutako etxebizitza kopurua gehitu egin zen Alde Zaharraren Plan Berezia aldatu ondoren. Eraikina birgaitzeko eman zen lizentziaren arabera, gehienez zortzi etxebizitza izango zituen. 2002ko urriaren 16an Udalak zortzi etxebizitzak, merkataritzako lokalak eta eraikinaren teilatupeko trastelekua lehenengoz okupatzeko lizentzia eman zuen.

Udalak honakoak eman zituen erantsitako agiri gisa: lehenengoz okupatzeko lizentziaren kopia, 2004ko ekainaren 18an (...) andreak egindako eskaera trastelekuaren erabilera aldatzeko, salerosketa-eskitura, teknikariaren eta Surposa elkartearen kontrako txostena, erabileraren aldaketa onartzen ez duen Ebazpena eta interesdunari jakinaraztea.

Gero, Udalari kexaren arrazoiari buruzko erantzun eztabaidaekin eta esplizitua eskatu genion, hau da, erroldan izena emateko eskaerari loturik. Bigarren komunikatuan Udalak honakoa adierazi zuen: "*aipatu emakumeak bere burua erroldatu nahi duen lekuak indarrean den araudiaren arabera trasteleku erabilera du, beraz, ezin daiteke etxebizitza bezala hartu. Halaber,*





Portugaleteko Udalak ez du baimenik ematen etxebizitza gisa erabil ezin daitezkeen lekuetan erroldatzeko”.

Aurrekariak ikusita, kexan eta Udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Aurretik, garrantzitsua da aipatzea kexa horren helburua udaleko erroldan agertzen diren datuak aldatzea eskatzeko eskubidearen onespena aztertzea dela. Kexagileak Portugaleteko Udalaren Hirigintzako Plangintzaren arabera trasteleku bezala erabiltzeko baimena duen helbidean erroldatzeko eskatzen du. Espediente honen helburua ez da erabilera aldatzeko eskatzea, ezta higiezina birgaitzea eta okupatzea ere; helburua (...) andreak bizi den helbidean erroldatzeko duen eskaeraren azterketa baino ez da.
2. Errolda administrazio erregistroa da, udalerrian bizi diren pertsona guztien bizilekua eta inguruabarrak jasotzea bakarrik da bere funtzioa. “Administrazio-informazioaren” erregistroa da, helburu gisa Herri Administrazioei beren funtzioak modu eraginkorrean garatzea errazteko informazioa ematea duena.

Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legearen (TAOL) 16. artikulua dio udal errolda udalerriri bateko biztanleak agertzen diren administrazio erregistroa dela. Bertako datuek frogatzen dute udalerrian bizi direla eta bertan dutela ohiko bizilekua. Datu horiekin egiten diren egiaztapenak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo guztietarako.

Erregistro horretan izena emateak udalerriko bizilekua eta etxebizitza bakarrik egiaztatzen du. Erroldaren ziurtagiria ohiko bizilekuaren eta etxebizitza egiaztatzeko bitartekoa da, nahiz eta bakarra ez izan, 2004ko uztailaren 13ko epaian Auzitegi Gorenak aipatzen duen bezala: “... errolda, bizilekua egiaztatzen duen agiri ofiziala izanik, ez da ahaztu behar ezartzen duen presuntzioa iuris tantum dela, aurkako proba onartzen duena, Sala honek errekurritutako epaiak aipatzen dituen 1998ko apirilaren 28ko eta 1998ko urriaren 13ko epaiak, 1979ko urtarrilaren 2ko epaia eta batez ere, 2002ko otsailaren 20ko epaian adierazi eta baloratu bezala; azken horretan, besteak beste, adierazten da errolda aurkako egintzen ondorioz desegin beharreko proba dela egintza horiek hala gertatu direla eta egia direla egiaztatzen denean”.

Beste alde batetik, beste erregistro batzuek ez bezala, esate baterako, jabetzaren erregistroan, erregistratzen diren egintzek ez dute “erregistroko fede





publikoa” izenekorik, harremanetan segurtasun juridikoaren plusa ematen dutena, jabetzaren erregistrozailleek kalifikatzen dituzten egintzek dituzten bezala, erregistroan sartzen ahalegintzen diren agirien legezkotasuna kontrolatuz. Udal erroldan izena emateak ez du inolako administrazio jardunik baliozkotzen eta ez du etxebizitza okupatzeko tituluarekin Udala ados egotea ere eskatzen.

3. Zerbitzu publikoak planifikatzeko udalerriko benetako biztanleria jakin behar dira. Erroldak udalerrri bateko biztanleria osatzea du helburu (TAOL 15.2 artikulua). Udalak arduratzen dira errolda egiteaz, eta erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealitatearekin bat etor daitezen (TAOL 17. artikulua). Abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuak ezarritako uztailaren 11ko 1690/1989 Errege Dekretuak onetsitako Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 77. artikulua bete behar hori nola gauzatu behar duten azaltzen du: *“Udal erroldaren eta errealitatearen arteko bat-etortzea lortzeko, Udalek laginketak eta kontrolak egin behar izango dituzte sistematikoki eta biztanleek mugikortasun handiagoa izan dezaketen sektoreetan indartu behar izango dira. Aldizka erroldaren benetako egoera egiaztatzeko eta bertan agertzen diren datuak eguneratzeko eremuko lanak egin behar izango dira, arreta berezia jarriz urbanizazio berriak, eraikuntza berriak, eraispinak, eta abar egiteko udal baimena eman zaien guneei eta horien emaitzak Estatistikako Institutu Nazionalari jakinaraziz”.*

TAOLen 17. artikulua Estatistikako Institutu Nazionalari eskumena ematen dio egon daitezkeen hutsak zuzendu eta bikoiztasunak saiheste aldera egiaztapen egokiak burutzeko eta Udalei estatu mailan erroldako datuek biztanleriaren estatistikak egiteko oinarri bezala balio dezaten beharrezkoak diren jarduerak eta lanak Udalei jakinarazteko. Urteko berrikusketen ondoriozko kopuruak ofizialak izan daitezzen eta udalek Hauteskunde Zentsuko datuak, behar bezala eguneratutakoak, igorri ahal izan ditzaten. Halaber, Estatistikako Institutu Nazionalaren buruari erroldatzearen arloan Udalen, probintzietako aldundien, irltetako Kabildoaren eta Kontseiluen edo erakunde horien eta Estatistikaren Institutu Nazionalaren artean sor daitezkeen desadostasunen ebazpena eman dio.

Erroldatze Kontseilua ere araupetzen du, Ekonomia eta Ogasun Ministeriora adskribatutakoa, Estatuko Administrazio Orokorraren eta erroldaren arloko Toki Erakundearen arteko lankidetzarako kide anitzeko organo bezala. Besteak beste udal erroldak kudeatzeko beharrezkoak diren argibide teknikoak onesteko funtzioa du.





Araudiak ez du uzten errolda eta udalerrian benetan bizi diren pertsonak bat ez etortzea. Egokitzeko alta edo, hala denean, ofiziozko baja agintzeko prozedura hasia aurreikusten da (BLMAko 71., 72. eta 73. artikulua). Halaber, aurreikusten du, erroldan agertzen diren datuak errealitatearekin bat etor daitezen Udalak erroldak eguneratuta izateko beharrezko eguneratzea eta lanak egin ezean, Estatistikaren Institutu Nazionalak, Erroldatze Kontseiluaren txostenaren ondoren, TAOLen 60. artikuluan aurreikusitako ordeko burutzapenera jo ahal izango du, egokiak diren errekurso juridikzionalen kaltetan izan gabe (BLMA 62. artikulua).

4. Udal erroldan izena ematea araupetzen duen araudiak ez du baldintzatzen erroldan izena ematea higiezina betetzeko legezko titulu bat lortzean edo hirigintzako plangintzako arauan betetzean. Arlo honetan garrantzitsua da Estatistikako Institutu Nazionalak emandako jarraibideak aipatzea. Aurrez aipatu dugun bezala, institutu horrek udalerrietako erroldak kontrolatu eta koordinatzen ditu. Besteak beste, bi aipatuko ditugu, izan ere, horien edukitik nahiko garbi ondorioztatzen da udal erroldaren izaera eta helburua. Lehenengo, udal errolda berrikusteko eta kudeatzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen dituen Ebazpena, 1997ko apirilaren 1ekoa, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa. Ebazpen horretan ezartzen dira udal erroldan gertatzen diren aldaketak izapidetzeko prozedurari buruzko argibideak, *“herritarrek ohiko bizilekua duten udalerriko erroldan izena emateko eta dagozkien egoitza aldaketan berri emateko dituzten betebeharrak Konstituzioak aintzatesten duen egoitza modu askean aukeratzeko eskubidearekin bateratzeko xedez, eta eraginpeko udalen artean jarduketak koordinatzeko”*. Bigarrenik, udal errolda eguneratzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen dituen Ebazpena, 1997ko uztailaren 4koa, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa (BOE 2007/07/25). Ebazpen horretan, Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 59.2 artikuluan aurreikusitako Udalaren ahalmenaren irismena argitzen da. *“Herritarrek emandako datuak egiaztatu ahal izango ditu Udalak, eta horretarako agiri hauek eskatu ahal izango ditu: nortasun agiri nazionala edo bizileku txartela, familia liburua, etxebizitza okupatzen ari dela egiaztatzen duen titulua edo antzeko dokumentuak”*.

3. jarraibidea (1997ko uztailaren 4ko ebazpena):

“Udalak herritarrari etxebizitzaren okupazioa egiaztatzeko titulua eskatzeak (Araudiaren 59.2 art.) ez du esan nahi toki administrazioek jabetza, hiri errentamendu edo izaera juridiko-pribatuko kontuak epaitzeko eskumena





dutenik; horren helburu bakarra herritar hori benetan adierazitako helbidean bizi dela egiaztatzea da.

Horregatik, titulu hori jabetza eskritura edo errentaren kontratua izan daiteke, baita etxebizitzaren zerbitzu baten hornidura kontratua ere (ura, gasa, elektrizitatea, telefonoa, etab.); gerta daiteke, orobat, halakorik ez izatea ere (kasu hau izango litzateke norberarena ez den jabetza publiko zein pribatu baten titulu gabeko okupazioa). Azken kasu horretan, udal kudeatzaileak beste bitarteko batzuk erabili behar izango ditu herritarra benetan etxebizitza horretan bizi dela egiaztatzeko (udaltzaingoaren txostena, zerbitzuaren inspektzioa, etab.) eta, hala bada, udal erroldan izena eman behar izango dio, kontuan hartu gabe jabe legitimoa bere eskubideez baliatzen den agintarien edo auzitegi eskudunen aurrean (horiek ez dira inoiz erroldaren kudeatzaileak izango)”.

Aurrerago, ebazpen honetan bertan, bizigarritasun baldintzak aipatzen dira. 4. jarraibidea:

“Aurreko arauan esan bezala, udalerriko herritar bakoitzaren benetako bizilekua zein den islatu behar du erroldak. Errealitate hori gertatzen den bakoitzean erroldan jaso behar da. Erroldan izena emateak eta etxebizitzaren titulartasunari buruzko auzi juridiko-pribatuak zerikusirik ez duten bezala, gauza bera gertatzen da etxebizitzaren inguruabar fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoekin.

Ondorioz, infraetxeak (txabolak, karabanak, kobazuloak, etab., bai eta inolako bizileku motarik ez edukitzea ere) bizileku onargarrizat hartu ahal dira eta hartu behar dira erroldan, batzuetan errealitatea horixe delako”.

Araudi hau aplikatu behar dute udalek, izan ere, ikusi den bezala, Estatistikako Institutu Nazionalarekin partekatzen dute eskumena, “egon daitezkeen hutsak zuzendu eta datuen bikoiztasunak saiheste aldera”. BOEn argitaratu ziren ebazpen horiek. Haien izaera juridikoa xedapen orokor batena da, izan ere, arautzeko helburua dute eta hartzaile kopuru mugagabeari zuzenduta daude, hau da, abstrakzio ukitua eta izaera ordenatzailea dute (Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren 1997ko maiatzaren 5eko epaia: *horien ezaugarri bereizgarria ordenamendu juridikoan abstraktuki txertatzeko gaitasuna da, hurrengo askotariko aplikazioen iturri gisa...*”).

Ebazpen hauek udal erroldan helbide aldaketa inskribatzeko prozedura arautzen dute eta argi uzten dute inskribatzeak ez dakarrela hirigintzako plangintzaren arabera desgokia den lurzorua erabilerari legezko estaldura ematerik.





5. (...) andreak hainbatetan eskatu zuen erroldan helbidea aldatzea; besteak beste, 2007ko irailaren 27an. Erroldaren kudeatzaileak eskatzailearen nortasuna eta hain zuzen ere helbide horretan bizi dela egiaztatu besterik ez du egin behar. Nolanahi ere, benetan udalerrian bizitzea da bete behar den baldintza. Erroldan inskribatzea Udalaren eta dagokion pertsonaren betebeharra da: *“Espainian bizi den pertsona oro behartuta dago ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan izena ematera”* (TAOLren 15. art.). BLMAren 54.1 artikulua pertsona orok erroldan izena emateko duen betebeharra errepikatzen du, eta BLMAren 68.1 artikulua, berriz, inguruabar pertsonaletan gertatzen diren aldaketen berri emateko betebeharra, udal erroldan nahitaez agertu behar duten datuetan aldaketaren bat dakarten heinean. Datu horien artean dago ohiko bizilekua (TAOLren 16. art. eta BLMAren 57. art.). Bestalde, BLMAren 107. artikulua, zigortzeko arrazoi gisa jasotzen du erroldatzearen inguruko betebeharrak ez betetzea.
6. Inskripzioa ukatuz gero, herritar izatera heltzea eta TAOLren 18. artikuluan aurreikusitako eskubideak eta betebeharrak gauzatzea eragozten da. Inskribatzeak herritar bihurtzen du erroldatua, eta horrek udal administrazioarekiko eskubideen eta betebeharren titular egiten du. Horrela, hautesle eta hautagai izan daiteke hauteskunde legerian ezarri bezala, udal kudeaketan parte har dezake legeetan ezarritakoaren arabera, udal zerbitzu publikoak erabil ditzake beren izaeraren arabera eta aprobetxamendu komunalak balia ditzake arau aplikagarrien arabera. Legez ezarritako prestazio ekonomiko eta pertsonalen bidez udal eskumenak gauzatzen laguntzera behartua dago, jakinaren gainean egoteko eskubidea du, aurrez eskaera arrazoitua eginda, eta eskaerak egin diezazkioke udal administrazioari, Konstituzioaren 105. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, herri kontsulta eska dezake Legean ezarri bezala eta prestazioa eta, hala badagokio, dagokion zerbitzu publikoa ezartzeko eskaera egin dezake, baita hala exijitu ere, udal eskumen propioa eta nahitaezkoa bada.

Gainera, erroldan inskribatzea eskubideak gauzatzeari lotua dago; eskubide batzuk oinarritzkoak dira, zirkulatzeko askatasunerako eskubidea, esaterako. Parte hartzeko eskubideari ere eragiten dio, hauteskunde erroldarekiko duen loturarengatik, baita hezkuntzarako eskubideari, gizarte zerbitzuetarako eskubideari eta osasun laguntzarako eskubideari ere. Kexa aurkeztu duenak Portugaleteko (...) kaleko (..) eskuinean erroldatuta jarraitzen duen arren – helbide hori izan du bizitza osoan, familiaren helbidea hori delako–, eskubide hauek eraginpean jarraitzen dute. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren iritziz (EAEko Auzitegi Nagusiaren 563/2001 Epaia, ekainaren 22koa), Konstituzioaren 19. artikulua bermatzen duen egoitza modu askean aukeratu ahal izateko eskubidea urratzen da udal erroldan helbide aldaketa inskribatzeko eskaerari uko eginez.





Azken finean, erakunde honen iritziz, erroldan helbidea aldatzeari ezin zaio uko egin Udalak hain zuzen ere helbide berrian bizi dela baldin badaki.

Azkenik, Udalak idatziz erantzun dio helbidea aldatzeko eskaerari, eta hori administrazio egokia deitzen denaren aurkakoa da, pertsonen eskaerei berriazko erantzuna eman behar baitaie arrazoizko epe batean, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan aurreikusitako ebazteko betebeharra ez betetzea baitakar. Lege horrek egindako eskaera guztiei erantzuteko betebeharra ezartzen du: *“Administrazioa behartuta dago prozedura guztietan berriazko erantzuna ematera eta hori jakinaraztera, prozedurei hasiera emateko modua edozein dela ere”*.

Hori guztia dela-eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

11/2008 GOMENDIOA, maiatzaren 6koa, Portugaleteko Udalari egindakoa.

Udal erroldan helbidea aldatzea onar dezala gomendatzen zaio.

